



Gure eskola.com

LA SALLE-LEGAZPI
Ikastetxea


Abendua 2018
78. Alea

Q
Euskadi
2006

Loiolako Iñigoren kalea, 7 · 20700 ZUMARRAGA Gipuzkoa · Telf. 943 72 15 14 · Fax 943 72 56 73
www.lasallezumarraga.eus · aldizkaria@lasallezumarraga.eus



**300 urte
hamaika bihotz**

	Editoriala 300 urte... eta gehiago	2-3
	La Salle Legazpi Calendar	4-17
	Berriak	18-19
	Elkarriaketa Iosu Sarasola eta Amparo Diego	16-21
	Gure Txokoa Vivir con menos	22-23
	Erreportaia 300 años, infinitos corazones	24-29
	Irakasleen txokoa	30-33
	Ikasleen txokoa	34-45
	Familien txokoa	46-55
	Ikastetxea lehen eta orain	56-57
	Zorionak	58-69
	UGLE	66-67
	Kontrazala	68

 La Salle Legazpi
 @LaSalleLegazpi
 LaSalle Legazpi Zumarraga-Urretxu
 www.instagram.com/lasallelegazpi/

300 urte... eta gehiago

Aitor Macho

Ikasturte honetako lehen alerako, ezin dugu ahaztu La Salle eskola guztietan gogoratzen, ospatzen eta osatzen saiatzen ari garena: Juan Bautista De La Salleren heriotzaren hirugarren mendeurrena, 300 urte.

Horretarako, aldizkariko atal honetan, nire hitz gutxi egongo dira eta La Salle Institutuziotik helarazi digutena zabaltzeko aukera aprobetxatuko dut. Beraz, jarraian daukagun ikuspegi historiko eta biografikoa ez da nirea, baina guztiontzat da.

Juan Bautista De La Salle Reimsen jaio zen eta bere familia pribilegiatuenetakoa zen haien hirian. Haren aita, Luis, magistratua eta errege Kontseilaria zen Reimsen. Haren amak, Nicolek, ontasun eta mahasti handiak zeuzkan familiaren aldetik, haien artean beraien abizena daukan Moët deituriko xanpain preziatuaren ekoizpena. Eta, ontasun material hauekin batera, beren seme-alaba ugari kristautasunean hezten jakin zuten: fedean, begirunean eta Jainkoarekiko maitasunean.

Bera, Juan Bautista, lehen semea zen, eta apaiz bokazioa antzematen zitzaion. Pariseko Sorbonan ikasi zuen. Hara joan zen 18 urte zituela, eta Reimsen, bere herrian, Arte Maisua titulua lortu eta gero, bere hurrengo titulua Reimseko katedraleko kalonjea izan zen, non koroatzen ziren Frantziako Erregeak.

Bere anai-arreben ardura hartu behar izan zuen, tutore eta administratzaile gisa, gurasoak gazte samar zendu zirelako. Juan Bautistak 20 urte zituen orduan eta Parisen ikasten ari zen, oraindik bere Lizentzia eta Doktoretza prestatzen.

Juan Bautista La Sallekoa kontraste nabarmen batean bizi izan zen, bere giro berezi horretan, 25 urtera arte. Egun batean, haur batzuk aurkitu zituen, pobre eta artisauen semeak; ez zuten hezkuntzarik jasotzen eta ez zeuden ezta eskolatuak ere, kalean bizi ziren. Honetaz konturatu zen eta erabaki bat hartu zuen: denbora eta dirua eskainiko zizkiela... bere egiazko txera guztiaz, bere otoitz une oroetan inspiratuta. Begien aurrean zuen arazo horri erantzuna eman zion.

Pertsona ezberdinei kontsulta egin eta, azkenean, maisu batzuei bere egitasmoa proposatu zien. Gizartea aldatzen ari zen. Argi eta garbi, lagundu eta kolaboratu beharra zegoen: borondate osoa, irekiera eta konpromisoa beharrezkoak ziren betebeharrak horretan.

Hurrek jasotzen zuten gutxieneko hezkuntzan akats izugarri handiak ikusten zituen. Eta hala, bide batez, "konpromisotik konpromisora", eskolekiko eskaintza eta formazioan, Jainkoaren deia aurkitu zuen: bere adiskide Nikolas Roland-ek, hilzorian zegoela, Haurra Txit Santuaren Ahizpen arreta eta zaintza eskatu zion; ahizpa hauek neskakxa pobreentzako eskola bat zuten Reimsen. Gero eta entrega, eskaintza eta liskar gehiago eta handiago eskatzen zuen bidea zen hau; honek bereizmena, determinazioa, batzuetan heroikoa, eskatzen zuen.



Eta argi ikusten hasi zen; bere zeregina ez zen parrokia izango, eskola baizik. Bere adiskide Roland-en aholkua gauzatuko zuen eta "zanbuluka zegoen obra horretan lan egin zuen buru-belarri".

La Sallek gotzaingoaren eta udalbatzaren baimena jaso zuen, baita Luis XIV. Erregeak sinatutako karta patenteak ere.

Reimseko Legebiltzarrak onartu eta erregistratu zituen.

Gero, Adriano Nyelen bisitaldia suertatu zen, Rouenen bizi zen La Salleren senide baten aldetik zetorren. Haren eskutitzaren eskaera zekarren: "Zaindu Reimseko haurrak Rouenen jada egiten dugun bezala". Eta La Sallek hartu, mediatu eta "baietz" esan zuen. Eta hala hasi zen den-dena.

Eta nola jarraitu zuen, hurrengo ale batzuetan azalduko dut, beste kapitulu batzuetan, baina bitartean, gure eguneroko betebeharrekin jarraitzen dugu gure eskola honetan, gure egunerokotasun honek Juan Bautistak hasitako bide horrekin lotura handia daukala ondo badakigulako. Izan ere, 300 urte hil zela ospatzen ari garela esaten dugunean, ez dugu heriotza ospatzen, baizik eta berak bere bizitza oparoan lortutako dena, guk osatu nahi duguna, gure garaiko neska-mutilekin, Juan Bautistak bere garaikoekin egin zuen bezala.

300 urte baino gehiago bizi dituen misioak gure mimo eta ahalegin guztiak merezi ditu. Gure aldetik hori onartzen dugu eta, gure horrekiko arduraz jabetuta, gure egunerokotasunari egiten diogu aurre.



20 ALT XORRAREN BILA 4 URTE
Gure txikiak gozatu zuten egunaz. Lau urteko haurrek lau andereño-rekin lagunduta, bidegorritik buelta bat eman zuten ostiralean. Tuneletik pasatzerakoan linternarekin dena behatu zuten, baina altxorra aurkitu ez! Hurrengoan ziur!

Bideoa



21 DBHko IKASTURTE HASIERAKO IRTEERA IZAZPIRA
DBH osoko ikasle eta irakasleak Izazpira igo ziren. Ekintza hau urtero toki ezberdin batera dena, tutoretza arloan egiten da elkar-ezagutzak bultzatzeko klasea ez den beste giro batean.



21 PARKEAN
Gure hiru urtetako txikiak parkera joan ziren eguraldi ona probestuz. Lagun guztiek oso ondo pasa zuten eta oso ondo portatu ziren. Joan-etorrian korda batekin lagunduta joan ziren poliki-poliki. Errepikatze modukoa.

Bideoa



21 ANTIO
Antiora joan ziren HHko 5 urteko neska-mutilak. Bertan goiza pasa zuten. Interpretazio zentroa bisitatu eta hamaiketakoak jan ondoren, momenturik dibertigarriena lagunekin jolasean ibiltzea izan zen!

bideoa




27 Txangoa Trekutzera LHko 5. eta 6. Ikasleekin
Lehen hezkuntzako ikasle nagusienak, 5. eta 6. mailakoak alegia, Trekutzera joan ziren. Ikasturte hasierako irteerak ikasleen momentu gustuenetariakoak dira, bertan, uda oso baten ostean elkarrekin haien gauzetaz hitz egiteko tartea dutelako, baita jolasteko denbora ere.

Bideoa



29 ERREKAREN EGUNA
Errekaren eguna oso arrakastatsua izan zen. Areizaga-Kalebarrren plazan pertsona asko bildu ziren ibaiko parte ezberdinak garbitzeko, bertan taldeak antolatu ostean, lanari ekin zioten. Lagunen artean lan egitea ez da hain neketsua eta barre batzuk bota zituzten. Amaitzerakoan merezitako ogitartekoa jan zuten eta laguntzeagatik diploma ederra jaso ere bai.



30 LA SALLE MENDI TALDEA
Eguraldiak lagundu zuen La Salle Mendi Taldearen ikasturte hasierako lehenengo irteeran eta Zumarraga-Goikotxabola-Iraola-Zumarraga mendi bueltaz disfrutatze 51 pertsona bildu ziren.



3 ZINEMASKOLA DBH 1-2 / 3-4
18 Tutoretza saioetan Zumarragako udalarekin bat egiten dugun ekintza da Zinemaskola. DBH lehenengo zikloko ikasleak ikasturtean zehar lautan joango dira, bigarren ziklokoak, ordea, hirutan. Gai ezberdinak jorratzen dituzte tutoretza orduetan ikus-entzunezko materialen bidez, ikasleek gogoetak egin dituzte eta gero Zelai Ariztira doaz filma ikustera. Oraingo honetan "Little Miss Sunshine" izan da DBH osorako.



5 UDAZKENA EZAGUTZEN
 Gure 1. eta 2. mailako ikasleak haien arteko eta naturarekiko harremanak sustatzeko helburuarekin, Rasi izeneko maskotaren bizilekua bisitatzera joan dira. Bertan, inguruko zuhaitzak eta udazkeneko fruituak ezagutu dituzte: pagoa, haritza, gaztainak, ezkurak... Eta jolasean, hosto bilketa ere, egin dute haien koadernoak apaintzeko.




14 Haur eskolan esperimentuekin ikasten dute, oraingo honetan harez erdiz beteriko plastikozko botilekin jolasean ibili dira.

Bideoa



24 SANTA BARBARARA IGOERA
 Santa Barbara mendira joan ziren egun pasatzera LHko 3. eta 4. mailakoak. Goizeko 9etan eskolan denak bildu ostean denak elkarrekin joan arratsaldeko 16:30etara arte. Bertan, Aikur Erle museoa dagoenez, 4. mailakoek aprobetxatu zuten bisita egiteko. Josunek, erletokiaren jabeak oso ondo azaldu zien erleen bizitza, non bizi diren, erle motak, nola lortzen duten ezia, polena...eta teoria ostean, praktika: beraien traje berezia jantzi benetazko erlauntzak erleekin ikusteko. Txandaka zenez, beste batzuk argizariz kandela bat egin eta ezia hartu zuten.



24 Irakurtzea bidaiatzeko era
26 magikoa da eta lehen hezkuntzako gure txikien artean irakurtzeko ohitura hau sustatzeko, urriaren 24an hasiera emango diogu Liburutegiaren Asteari. Liburuen bizitoki hau ondo apaindu ostean, asteartetik ostiralera ekintza ezberdinak burutuko dituzte bertan. 3. mailakoek gure ikastetxeko liburutegia bisitatu dute, 4. mailakoek, ordea, herriko liburutegira joango dira bere funtzionamendua ikusteko eta liburuak nola ordenatu eta nola eskatzen diren ikasteko. Txikien eta nagusien artean "apadrinamendu lagundua" abiatuko dute, 1. eta 2. mailako ikasleek etxetik ekarriko dute haiek aukeratutako liburu bat, 5. eta 6. mailakoek haiei irakurrarazteko. Ez utzi biharko gaur irakur dezakezuna!



25 ESKOLA EZAGUTZEN
 Gure hurrek bere inguruko mundua ezagutzen ari dira, horretarako, beti andereñoekin lagunduta, eskola goitik behera ezagutzera joan dira.

Bideoa



26 GURPIL GAINEAN
 Parkean gustura jolasteko asmoz eta motor, triziklo eta patinete gaineen ibiltzeko proiektua garatu dugu astean zehar. Ikasi dugu nola hartu behar diren garraioak, ilaran jarri behar dugula, buelta bat eman eta eta beste aparkalekuan utziko dugula beste lagun batentzat. Trafiko seinaleak ikasi ditugu eta hoiek betetzeko gure parkezainak txistu eta guztiz. Betezen ez dituenari ixunak jartzen jo eta fuego. Udaltzaina ere, bisitan etorri zen, guri erakusteko haurrak nola ibili behar diren kaletik eta kotxean doazenean. Zenbat ikasi dugun eta orain parkean istripu gutxiago izango ditugu.



30 ZIENTZIAREKIKO PASIOA SUSTATZEN
 Donostia International Physics Center-ek 'Top@DIPC- Zientziarekin Solasean' jardunaldiaren X. edizioa antolatu du pasaden urriaren 30ean. Bertan, gure ikastetxeko 4. DBHko lau ikasle, Leire Montero, Leo Miranda, Fernando Pérez eta Joseba Aperribai egon ziren, beste Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleekin batera zientzia munduko ikerlari ospetsuen eta Nobel Saridunen presentziak gozatzen, haien artean Pedro Miguel Etxenike DIPCKo presidentea. Topaketa Donostiako Eureka! Zientzia Museoan izan zen eta honen xedea ikasleen artean ikasketa zientifikoekiko bokazioa sustatzea da. Aldi berean, ikasle gazteen ezagutzarekiko grina piztea ere.



31 Halloween festa lehen hezkuntzan ere ospatu dute, eskeletoz moztorra egin material birziklatuz eta bide batez, ingelesa praktikatzu dantzatu eta abestu dute kaperan. Oso momentu dibertigarri izan da!

Bideoa



31 Urriak 31 dituenen Halloween datorkigu. Aurten haur hezkuntzako hurrek ospatu dute. Astean zehar gaia landu ondoren, "trick or treat" martxan jartzeko ordua iritsi zen! Aurpegi margoketa egin ondoren, itxura beldurgarria hartu eta beste geletara joan ziren. Egundibertigarria benetan, baina... A ze beldurra!



7 BIRZIKLAPENA SUSTATUZ
Agenda 21 barruan hondakinen bilketa prozesua lantzen da. Birziklapena sustatu eta irakasten da eta ikasitakoa ohitura bilakatzeko erarik hoberena praktikatzea da, hortaz, ikasleek kurtsoka eta zonaldeka antolatuturik eskolako zakarrontzien poltsak husten dituzte asteazkenero. Materia organikoa, berriz, egunero bildu eta aldatzen da. Gero eta hondakin gutxiago sortuz, ahalik eta birziklapen-tasa handiena lortuko dugu!



8 FRUTA DASTAKETA
Gure haurrek mundu oso bat deskubritzeke daukate, oraingo honetan zaporeen mundua. Fruta tailerra egin dute, fruta desberdin asko dastatuz: sagarrak, platanak, kakiak, kiwiak.... Munduko zaporeak ezagutzeko ez dago hamaiketako osansutsuagorik!
Bideoa Bideoa



8 Aspace, garun paralisia duten pertsonen integrazioan laguntzen duen erakundea bezala ezagutzen dugu gehienok. Gure eskolak Aspacerekin bat murgildurik egon gara orain arte. Iazko ikasturtetik, eta saskigintza aitzaki, 6.mailakoek bihotzera zuzentzen den ekintzaz goatzeko aukera dute. Aurten ere, gure lagunen bisita izango dugu azaroan zehar. Aste honetan, Mikelen, Angelen, Eduren eta Miriamen doainak adierazgarri izan ditugu, eta teknologia berrien, zein Ibon eta Nerearen laguntzaz, beren betebeharrak burutzeko gai direla demostratu digute, eta gu guztion ikaskuntzan aurrera pausoak ematen lagundu digute. Gurera gerturatu diren lagunen gizatasunaz goatzeko aukera izan dugu, eta alaitasuna, gertutasuna, naturaltasuna, umiltasuna, eskertza eta pazientzia bezalako balioak izan dira guretzako eramango ditugun ikaskuntzarik oparoenak. Gizartea denok osatzen dugu, eta gaitasunek ez gaituzte hobeak edo boteretsuagoak egiten, elkarlana eta lagun urkoarekiko errespetua izango dira etorkizun oparoa eskainiko dizkigutenak. Horregatik, La Salle Zumarragako ateak irekita izango dituzte beti, eta jada jaso dugu beraien gonbitea beren eraikina ezagutzera joateko. Zalantzarik ez izan bertan izango gaituztela!!! Mila esker benetan!



8 La Salle Zumarragako txikienetarikoen barreak entzutea, pixka bat ibili eta disfrutatzea ikustea guztion egunerokoa poztzen du. Gure andereñoen esku goxoen bidez mundua deskubritzen doaz, gauza edo material ezberdin erabiliz, egun honetan komuneko paperekin gora eta behera egon ziren.
Bideoa



9 Udazkenean naturak aldaketa asko jasaten ditu. Mendiak eta zuhaitza indarberritzen dira eta koloreak ikaragarriak dira, naturak eskaintzen digun edertasunaz goatzeko momenturik aproposena. Bi urteko gelan hosto festa egiten dute eta izugarri disfrutatu dute.

Bideoa



12 Olatu handia, LH 4. mailakoek egindako ITB (ikasketa testuinguru berrian) esperientzia da, aste osoan tutorea bere gelan egon da, bai goizez bai arratsalde, denbora osoan proiektuaren ekintza desberdinak egiten: ipuinaren irakurketa eta bere laburpena, Koinobori arrainaren eskulana, Google Maps-aren erabilera, Japoniako txokoa gelan sortu, eta proiektu dibertigarri honen amaierako ekintza burutzen dute Koinobori festa: japoniar umeen eguna ospatu, alegia. HARA eta SORMEN saio bana ere egiteko tarte izan dute. Lan honen helburua, zibilizazio bat bere kultura eta ohiturekin era dibertigarri batean ezagutzean datza, kasu honetan, Japonia. Asiako herrialde hau bidaiatuz, hango jendea, ohiturak, janariak eta marrazkia bizidunak ezagutuz.



12 Sallechef ikasketen testuinguru berrien barnean dagoen proiektua da. Bertan, bost egunetan zehar LH 5.mailakoek pintxo osasungarriak prestatzen ikasten dute. Egun horietan, dieta osasungarri eta orekatuei buruz lanean, errezeta liburuxkak prestatzen eta, onena, aste bukaeran egiten dituzten pintxoak jaten dituzte!!



12 6.mailako ikasleek aisialdiaren ohituretan berpentsatzen egon dira. Jolastokia berritzea ardatz, taldeka egon dira hausnartzen. Konturatu dira, lehiatik eta haserrealdietatik urruntzeko aukera badagoela ikasi dute. La Sallen lantzen dugun testuinguru berrietan oinarritutako proiektua dugu hau, ikasleak autonomiarantz bultzatzen duena.



15 Dastamena zaporeak ezberdintzeko guztion dugun ahalmena da. Txikiak garenean gure zentzu guztiak garatzen dira eta horiei laguntzeko, 2 urteko gelan zaporeak lantzen ibili dira askari txiki batean. Gauzak dastatzen zelako ondo pasatu duten gure txikiek!

Bideoa Bideoa



15 HE ISPILUEKIN JOLASTEN Zeinen dibertigarria den txikiek haien erreflexua ispiluetan ikusten dutenean! Gora eta behera jolasten ibili dira klaseko inguruan dauden gauza guztiak berbegiztatzen.
Bideoa



20 Lehenengo mailako ikasleek natura eta animaliekin lotutako proiektua aurrera eraman dute "Bailearen bila" izenpean. Lan kooperatibo hau burutzeko gure neska-mutilek bost saio erabili dituzte eta honen helburua ikasleek animalia motak lantzea zen, ugaztunak, hegaztiak, narrastiak, arrainak eta anfibioak. Bideo batzuk ikusi, orma-irudiak sortu, baileen bertsoaren letra ikasi, txapelak egin eta bertsoak abestu dituzte.



23 Lehen hezkuntzako txikiak, hau da, 1.mailako ikasleak Zumarragako liburutegira joan dira, ipuin kontalaria bertan zegoelako. 3 ipuin kontatu dizkiote eta oso gustura egon dira umeak. Ipuinak entzuteak umeen imagina eta sormena lantzea lortzen du, pentsamenduen bidaia amaitezinak!



23 Egun hotzak eta euritsuak ditugu lagun, eta horri aurre egiteko ba al dago munduan gaztain erreak jatea baino hobeagorik? Gure txikitxu, andereño, guraso eta laguntzaileak bat datoz!!
Bideoa



23 Pausoz pauso La Salle Zumarragako hartzaindegian gure txikiak ikasten eta ikertzen dute, haientzat egun bakoitza abentura berri bat da. Hemen haien hanka eta oinatxoekin esperimentatzen ibili ziren..



23 Kolore kolore zeinen dotore! Gorriaren festan gure txikitxoak deabrutxo bilakatu dira.



3 Gurea den eta maite dugun hizkuntza bat zaintzearen adibiderik onena erabiltzea da, ahoak euskaraz bizi eta belarriek prest entzuten dutenean, gure euskarak pozik disdiratzen du. Euskararen egunaren harira, La Salle Zumarraga osoa mobilizatu da hizkuntzarekiko gure konpromisoa aditzera emateko festa polit eta hunkigarri honekin.

Haur eskolatik bigarren hezkuntzara, lehen hezkuntzatik pasatzen, gure artistek dantza praktikatu, bertsoa sortu eta musikatu, ponpoiak egin eta gure hizkuntzari buruzko gogoetak egin dituzte, energia eta gogo guztiak euskararen egunean jarritz. Dena dela, euskararen eguna urteko egun guztietan dela eta izan behar dela oso argi izanda, lanean dihardugu. La Salle euskaraz!



5 Haur eskolan udazkenari ohore festa bat egin diote. Hostoekin zuhaitza dekoratu goxo goxo. **Bideoa**



Musika eskolarekin akordioa

Ikasturte honetatik aurrera, Secundino Esnaola musika eskolako dantza eta koro klaseak gure eskolako instalazioetan gauzatuko dira. Orain arte ekintza hauek Gainzuri eskola publikoan egiten zen.

La Salletik garrantzia ematen diogu eskolaz kanpoko ekintzak guztiok disfrutatu ahal izateari eta hori izan da, hain zuzen ere, ikastetxeak bultzatu nahi izan duen jarrera gure instalazioak musika eskolari doako eran uzten.

2019ko urtariletik aurrera, dantza eta koroko eskolak ikastetxeak atontzen ari da balio-anitzeko gelan egingo dira.

Aberasgarria den akordio honekin batera, La Salle Legazpik aditzera eman nahi du bere konpromesua Zumarraga eta Urretxuko beste erakundeekin, eta haiekin suerta daitezkeen sinergien partaide aktibo.



IZARTXO-LHko taldeen topaketa Andoainen

Ikasturte berriari hasiera eman diogu baina aisialdiko taldeei ere, haien artean Izartxo aisialdi taldeena. Urriaren 6an, larunbatarekin, La Salle Gipuzkoako ikastetxeak, hau da, Donostia, Andoain, Eibar, Beasain, Zarautz, Irún eta Gugeu, Zumarraga, Andoainen bildu ginen, 500 pertsona inguruko topaketan.

Ekintza hau bi urtetan behin egiten da eta beti lortzen duen arrakasta nabarmena da. Garrantzitsua da, urtean zehar, aisialdiko ekintza guztiak burutzen dituzten pertsonen hurbildu, motibatu eta elkar ezagutzeko. Aurreikuspen guztiek diote 2020. urtekoa gurean izango dela, Zumarragan.

Neska-mutil eta laguntzaile denak, hasierako agurra egin ostean, zuzenean gazteentzako ekintzekin hasi ziren, gynkanak, apar-festa, eskulan tailerrak, puzgarriak eta jolas ezberdinak egin zituzten. Bazkaltzeko tarteak ere izan zuten.

Arratsaldean dantza eta kanten tarteak iritsi zen, dantza-oke-berbenari esker. Bertan haurrek bikain dantzatu eta abestu zuten.

Seiak iristerakoan gauzak bildu eta talde bakoitza bere herrira joateko tarteak iritsi zen, denak sentsazio politekin eta Izartxoko ekintza berriak azkar egiteko gogoekin ere.



Ikasturte berria, jantoki berria

La Salle Zumarragako ikastetxea beti zerbitzu hobeto eskaintzeko lanean ari da, eta hain zuzen ere, hori izan da gure azkeneko erronka, jangelaren berrikuntza. Toki aldatu dugu eta 2018-2019. ikasturte berri honen lehenengo egunetik DBH bigarren zikloko eraikinaren azken solairuan izango dira gure menuen partekatzea.

Zonalde honek argitasun eta toki gehiago dauka, gaur egun 80 pertsona bazkaltzeko aukera baitu. Familien erosotasunean pentsatzen, uztailen hasi ziren bertako berritze lanak eta ikasturte berriaren hasierarekin bat, amaitu, klaseetako lehenengo egunetik ate irekiak eta zerbitzu normalizatua eskaini ahal izateko.

Orain gela zabalago batean bazkaltzen dute zuen seme-alabek eta mugikortasun arazoak dituzten ikasle eta langileak ere, arazorik gabe igotzen baitira jangelara, bertan igogailua dagoelako.

On egin guztie!

Energia era eraginkorrean kudeatzeko proiektu berria

Gure ikastetxean energia aurrezteko kudeaketa prozesuan lagunduko duen egitasmoa.



UGGASak bideratutako (Uhin erakundeak aholkularitzapean) proiektu honen helburuak, gure eskolako instalakuntzen erabilera egokia egitea eta energiaren erabilera zentzuduna bideratzea dira.

Inguruko esperientzietan oinarrituz, prozesuaren amaieran kontsumoa %8a aurreztera iritsi gaitezke, eta proiektuak proposatzen duenaren arabera, "aurreztutakoaren %50arekin, ingurumenaren aldeko ekintzen bat bultzatzea".

Adibidez, gure gastua 30.000€koa bada, prozesuan zehar %8a aurreztuko bagenu (2.000€ inguru), diru horren %50a (1.000€), eskola komunitateak proposatutako ekintza baterako bideratzea.

Prozesuan zehar jarraituko ditugun urratsen berri emango dizuegu.

Gure eskolak jada eman du lehen urratsa: ENERGIA-TALDEA osatzea. Talde honetan, ikasleak, irakasleak eta ez-irakasleak elkarlanean arituko dira. Hala ere, helburua ez da Energia-taldearen lan eksklusiboa izatea, baizik eta, eskola komunitatearen partehartzea eta sentsibilizazioa bultzatzea.

Ohiturak aldatu eta jarri ON!!!!

Bizitza oso baten bokazioa

Iosu Sarasola eta Amparo Diego

Hainbeste urte neska-mutilak hezten jardun ondoren, La Salle Zumarragarentzat 2019 gogoan izateko data bat da. Izan ere, 300. urtemugako ospakizunak Zumarraga eta Urretxuko umeentzat bezain garrantzitsua den beste data batekin batera baidator. Iosu Sarasola eta Amparo Diego irakasleen jubilazio garaia heldu da eta elkarrizketa atsegin honen bitartez bi irakasle hauen lanari omenaldi bat egin nahi diegu, hain atsegina den lanbide honen alderdi maitagarriena agerian utziz.

Egun on eta zorionak bioi. Esaidazue, betidanik jakin izan zenuten zuen bizitza hezitzaile bezala pasa nahi zenutela?

Iosu: Bai, betidanik, bokazionala da. Baina hori sentitu egin behar duzu, irakaskuntza aisialdia bezala sentitzen ez baldin baduzu...

Amparo: Bai, nik ere bai, losuren antza, erabat bokazionala da.

Pasioz egiten dena antzematen da eta horrela, hiru hamarkada hezkuntzan pasatu zaizkizue. Orain, zuen ibilbidearen azken urtea izanda, zein motatako sentsazioekin egiten diozue aurre?

Amparo: Losuren antza erabaki dut jarraian bukatzea. Egongo gara, behintzat ni, Aste Santura arte. Eta zein sentsazioarekin? Ni indartsu nago. Indartsu baina sorpresa batekin, ikastetxe honetan beti egon naiz hirugarren eta laugarren mailan eta erabat menperatzen ditut, baina aurre proposatu zidaten lehenengo mailara pasatzea, erronka berria.

Iosu: Nik zorionez hezkuntza asko maite dut, orduan ez daukat inolako arazorik geratzen zaidan dena elkartzeko. Horregatik eskatu dut tutore izatea, gai guztiak ematea. Adibidez, HIPI ere ematen dut, etorkinekin euskara lantzea da. Azkenean, harremanak landu egiten dituzu. Eta orain, nola mentalki oso ondo nagoen ez daukat inolako arazorik, eta horrela erabaki dut. Etorkizuna, ba... beno, hau bukatuko da, eta zorionez ere, ez guretzako bakarrik, pertsona berriak ere sartu behar direlako. Gure atzetik jende berria sartu egin behar da, beste indar batzuekin, haiek ere lan egin behar dute eta gu joaten ez baldin bagara...

Faltan botako duzue?

Iosu: Nik martxoan bukatu eta agian hurrengo ikasturtean boluntariotza egingo dut berriro eskola honetan, ez dakit zertan... laguntza gelako etorkinei lagundu, edozein gauza egiten! Nahiago dut horrela inbertitu nire denbora, denbora pasa eta horrelako gauzak baino.

Amparo: Egia esango dizut: faltan botako ditut umeak. Ez dut esaten ez dudala jubilatut nahi. Oso gustura jubilatuko naiz zeren eta 20 urterekin hasi nintzen klaseak ematean eta orain 61 urterekin indartsu nago, baina... Oso eroso da bizitzea erlojurik gabe. Oso goiztiarra naiz eta mendizalea, baina horrekin ez naiz betetzen, ni oso urduria naiz eta energia hori bota behar dut. Zerbait aurkitu behar dut... Felix anaiarekin edo nire anaiarekin, bera "Proyecto Hombre"-n dago. Zerbait egingo dut ziur.

Eta oroituko al zinatekete hainbeste urteren buruan nola izan zen hasierako ikasturte hori?

Amparo: Hasi ginenean? Ilusioz beterik. Ni ere, losuk esan duen moduan, bokazioagatik nago hezkuntzan. Orain emozionatu egingo naiz...

Iosu: Nik ikusi dudana diferentzia izan da adibidez: orain beste heldutasun bat daukagula gauzak prestatzeko, beste esperientzi bat. Gogoratzen dut, hasierako urte horietan prestatuta neramala bakarrik hurrengo egunean eskolan eman behar nuen saioa. Banekizkien zeintzuk ziren liburuaren erantzun guztiak, saioa menperatuta neukan. Orain, ikusten dut asko lagundu dutela teknologia berriek eta eskolak nolakoak diren. Lehen, Anai batek zeukan zuzendaritzaren ardura osoa, gaur egun ordea, kudeaketa partekatu batean gaude, izugarritzko aldaketa izan zen. Arduradun ezberdinak daude

eta prozesuka dago antolatuta, lan egiteko era ezberdina.

Beti egin duzue lan La Salle Zumarragan?

Iosu: Ez, Eibarko La Sallen ibilia naiz. Han egon nintzen sei bat urte. Nire ikasketak bukatu bezain pronto hortik deitu zidaten eta bertan oso ondo egon nintzen. Gero han nengoela, sortu zen ikastetxe honetan lan egiteko aukera eta hona etorri nintzen. Momentu horretan, ikastetxe hau Lanbide Heziketa eta OHO-koa zen. Osotara 32 bat urte egin ditut.

Amparo: Ni Urretxutik nator, bertan zegoen "Labeagako Moja Eskola", karitatearen Ahizpak. Zoragarriak ziren eta La Sallek esaten zuenaren ildo beretik zihozten, behartsuei lagundu. Gure eskolara Asturiaseko mineroen alabak etortzen ziren garai batean, logelak zeuden eta dena.

Orduan, bertan hemeretzi urte egon nintzen.

Pentsa ezazu garai horietan, justu karrera bukatu eta lana zegoen leku oro. Gero zonaldeko hiru ikastetxek bat egin zuten eta hona etorri nintzen.

Zelako oparia! Ikasketak bukatu eta... lana!

Amparo: Bai, magisteritza ikasi eta zuzenean. Ikasle batzuk banituen... ahizpak ginela ematen zuen! 20 urterekin, berri berria, kontratatu zidaten uztailean titulua bukatu nuenean eta zuzenean hasi nintzen. Ikastetxea zoragarria zen... jende gutxirekin, hasieran bakarrik neskak, gero jada, nola matrikula jaisten hasi zen mutilak onartu genituen eta La Sallen nago hiru ikastetxe horiek elkartu zirenetik..



Adin ezberdinetako ikasleekin egon ostean, klaseak ematerako garaian, zein adin tarterekin geldituko zinatekete eta zergatik?

Iosu: Berdin zait, ondo moldatzen naiz edozein adinarekin. Harremanetarako ez daukat inolako arazorik. Egon naiteke lehen hezkuntzan edo DBH batean eta adibidez, orain ematen dut DBH lehenengo eta bigarren mailan, txikitxoak dira, laugarren mailan ere eta moldatu egiten naiz berehala ez daukat inolako arazorik.

Amparo: Niretzako askoz errazagoa zen nire azken urtea hirugarren mailan bukatzea, menperatzen dudalako, egon naiz 22 urte hor! Baina zoragarri nago lehenengo ziklokoko lankideekin: Marivi, Pili eta Miriam, nirekin egon zela praktikak egiten eta nire ikaslea izan zen. Bikaina dira, batek kopiaren bat egiten badu, denontzako egiten du.

Eta zu Iosu, klaseak emateaz aparte zuzendaritza lanean ere aritu zara, ezta?

Iosu: Bai, sei urte ikasketa-buru bezala eta gero zazpi urte zuzendari. Bi plan estrategiko. 13 urtez kudeaketan. Zuzendari baino lehen, bigarren hezkuntzako ikasketa-buru izan nintzen eta gainera, eskolen unizegoen momentuan. Hemen geratu ziren La Salleko Anaia, zuzendari bezala eta gero sartu ginen bere zuzendaritza taldean. Pixka bat organigrama aldatu zen, begira, lehen zuzendari batek dena egiten zuen, baina La Salle hasi zen esanez zuzendaritza lanak bideratu behar zirela taldeka, beraz, zuzendaritza taldea sortu zen, zuzendaria Anai bat eta ni, ikasketa-buru. Eta nire zuzendaritza garaian izan ziren bi plan estrategiko. Bat lau urtetakoa eta bigarrena lau urtetakoa. Zazpi urte zuzendari. Eta orain irakasle. Gero nik erabaki nuen, jada bukatuko nuela nire zuzendaritza garaia eta nahi nuela irakasle izatera pasa, tutoretzarekin eta guzti.

Zer duzu nahiago, irakasle edo zuzendari izatea?

Iosu: Ez baina... Galdera izan daiteke: Iosu baina nola animatzen zara zuzendari izatera? *Esa es la pregunta del millón.* Hori pertsona askorekin hitz egin dut, uste baitute zuzendaria eskolako agintari gorena dela, baina gauza ez doa bide horretatik... Zuk zure burua ikusten duzu horrelako ardurak aurrera eraman ahal izateko, prest bazaude laguntzeko eta La Sallek ikusten baldin badu pertsona hori egon daitekeela ikasketa-buru bezala... ba aurrera.

Ikastetxe honen parte aktibo izan zaretela argi dago, baina ez bakarrik ikastetxearena, Zumarraga eta Urretxu herriena ere. Nola bizi duzue gure bizitokiaren hezkuntzaren parte ezinbestekoa izatea?

Amparo: Hori da niretzat onena, oso pozik nago. Niri asko gustatzen zait herrian egotea eta herrian irakaslea izatea. Adibidez, pasa den kurtso bukaeran kafetegi batean nengoen nire laguna baten zain eta UGLEn batxilerra egindako nire ikaslea, Ainhoa Gordo, niregana etorri zen, batxilerra amaitu berri oso nota onekin, eta "andereño Amparo!", nirekin eseri zen eta esan zidan: "Amparo badakizu, ja bukatu dut eta Dietetika eta Nutrizioa egin behar dut Bilbon". Agurtzen zaituzte. Normalena gehienak agurtzea da, batik bat gurasoak dira agurtzen zaituztena "Zer moduz zaude?, zer moduz doakizue? Jada jubilatua?" edo holakoak galdetzen didate. Hori ere oso garrantzitsua da. Ikasle ohi bat erizaina dela, beste bat kirol denda batean... "Begira Amparo, nire andereñoa izan zinen eta orain nire alabarena izango zara" esaten didatenean ere oso pozik jartzen naiz.

Iosu: Nire kasua diferentea da. Beasainen bizi naiz eta orduan erosketak egitera joaten naizenean, Amparori gertatzen zaiona ez dut bizitzen, ez dira han egoten. Guk daukagun

suertea, gure lanbidea pertsonarekin lotuta dagoela da, eta orduan, bi ondorio jaso ditzakezu: kasurik ez egitea, edo guztiz kontrakoa. Eta nik orain arte zortea izan dut, hurbiltzen dira. Ziur aski, hori jasotzen ari banaiz, ba esan nahi du zerbait transmititu dudala. Horrela da. Orduan, zorionez bai bizi izan ditut horrelakoak, gustatu egiten zait hezitzaile izatea eta erakustea.

Amparo: Hori oso polita da, asko gustatzen zait.

Iosu: Eta noski, horregatik izugarritzko zortea daukagu. Adin ezberdinetako pertsonak gureganatzea eta gutaz oroitzea... ostra! "Gogoratzen naiz irakasten zenidanaz" entzutea oso polita da! Gurasoek esan didate noizbait "aditzetaz gogoratzen naiz, eman zenizkidan eskemak gordeta ditut".

Amparo: Gaur egun guraso batzuk ditugu, adibide bat ipiniko dizuet, nire ikaslea izan zena, kalean topo egin genuen aurreko egunean eta esan zidan "Amparo, badakit jubilatuko zarela baina badakizu non nagoen eta behar baduzue edozein gauza ekartzea, deitu eta listo, behar duzue". Horrelako detaileak... Edo beste bat, arotza dena, "nahi baduzue nik egiten dizuet" esan dit behin baino gehiagotan. Holako erlazioak ditugu.

Iosu: Horrelako kultura daukate barneratura, konpromisoa... Oso ondo dago.

Ziurrenik zuen lan ibilbide aberasgarri eta luze honetan zehar, hamaika pasadizo bizi izan dituzuela, baten bat bururatzen al zaizu elkarriketari amaiera emateko?

Iosu: Ba begira... oroitzen naiz, lanbide heziketako azterketa batean nengoela, eta gainera bi gela zirela ate batekin separatuta. Orduan, ate erdian jarrita nengoen baina, nola kontrolatzen duzu dena? Ba oso zaila... baina bat batean, nik ezer konkretu ikusi barik bota nuen



"eh! Fulanito! emaidazu txuleta" eta triki triki protestatu gabe, eman zidan gizajoa. Bitxikeriak.

Amparo: Ba sorpresa politikak... Adibidez, lehen hezkuntzan oso polita da jaunartzea egiten dutenean bat batean etortzen delako norbait zure etxera tarta batekin edota xanpain botila batekin. Holakoak, igual gero eta gutxiago egiten dira, baina nik izan ditut. Ama bezala egiten nuen, nire semeek esan zidatenera arte "ama, jada ez dugu egingo, bestela esango digute pelota batzuk garela" eta egiteari utzi nion. Baina bestela, tira, beti zerbait ekartzen dute. Holakoak egiten dutenean, iruditzen zait familia horretan pozik daudela.

Gutxiagorekin bizi

Anai Mikel Arbizu

Protestak dantzuzkit: "Lanik gabe nago eta!", "Ez naiz hilaren bukaerara iristen", "Nire pentsioa ka... hutsa da", "Kalean eskean ibiltzea besterik ez zait falta".

Barka. Ez zen nire asmoa behar handiena dutenak ofenditzea. Alderantziz. Bizitza "normala" edo "ona" daramatenei buruz ari nintzen, hauek erritmoa jaitsi dezakete eta besteei laguntza eskaini. Ni neu nauzue zerrenda horretan.

Gaur egungo egoera sozial eta ekonomikoaren aurrean (zer esanik ez egoera politikoari buruz), ez dakigu zer

egin, ez zer pentsa; zoramenak eraso egin digu. Eta kontua ez da *alzheimer* delakoa daukagula, baizik gaia oso konplexua dela, oso zaila.

Behintzat, oraindik indarrak dituztenek gogoetatu eta ekin dezakete. Lasai, zuhurtziaz eta eskuzabaltasunez. "*Pentsamendu gaiztoak*" polizia-eleberriko jokalaria batek diosku "Printzipio gutxi, baina malguak" (J. M. Llorca); eskutada-idea on, garaiarekin bat datozenak.

Goazen oinarritzora. Ba al da denentzat jatekorik mundu honetan? Ez gara ari gobernuez, ez ONGz; besteei ardura botatzea izango zen. Potentzia handiek pentsa lezakete ezen, "azken zuhaitza moztu eta gero, edo, azken ibaia pozoitu ondoren, dirua ez dela jaten aurkituko zuten" (P. Rabhi). Utz dezagu hau adituentzat. Begira diezaiozun gertuko jendeari, auzokoari.

Esate baterako, albiste eta erreportaietan entzuten da herri aberatsetan konpainia-animaliak zaintzeko erabiltzen den dirua, dezente handiagoa dela herri azpigaratuen aurrekontu nazionala baino; edo artisten eta kirolarien soldatak eskandalagarriak direla.

Ez urrutira joan; ikasturtearen hasieran, ikasgeletan haxe esaten da: Zer moduz oporrak? Erantzunak askotarikoak izaten dira: "Ibizan hilabetea eman dut", "Disneylandian bikain pasatu genuen", "Nire aitona-amonekin Sorian izan naiz"...

Halako batean, parte hartzen ez zuen ikasle bati galdetu nion: Eta zu non izan zara? Erantzuna oso motza izan zen: "Hementxe, herrian". Ez dut gehiagotan ukituko gaia, hitz ematen dut.

Ezin dut aspaldiko pasadizoa ahaztu:

Barkisimetoko familia bat bisitatzerantz joan nintzen, oso larri bizi zen bere etxalde txikian. Andereari, ez dakit zenbat seme-alabek zeuzkan inguruan, poltsa bat eman nion banana eta ogi txikiz betea. Eskasa iruditu zitzaidan eta, poltsikotik billete bat atera nuen, bost bolivar ziren (euro bat gutxi gorabehera); orain xentimoak izango ziren. Erantzuna honako hau izan zen: "Anaia, honekin aste osoan jateko daukagu. Eskerrak". Hitz gabe gelditu nintzen.

David Thoreauk, *Waldengo* mendietan urte batzuk eman eta gero, zera komentatzen zuen "zein probetxugarria den halako esperientzia primitiboa bizitzea", basatia eta xumea, "pertsonaren benetako beharrak zein diren ikasteko". Eta hau denentzat da, gazte eta helduentzat.

Badugu beste esaldi bat oso entzuna eta ospetsua: "Nolako planeta utziko diegu gure seme-alabei?" Baina bestela ere esan daiteke esaldia: "Nolako seme-alabak utziko dizkiegu?"

Zinean ezagutu genuen jokalaria hark, erretako kortxoz bibote pintatua eta zigarropurua erabiltzen zuenak (Groucho Marx), umore jeniala zeukan. Halako batean esan zuen: "Gauza asko daude dirua baino garrantzitsuagoak. Baina hainbeste kostatzen dira...!". Eta partekatzen baduzu, zer esanik ez.

Duela mende asko, Michel Montaignek hau idatzi zuen bere *Saiakera* haietako batean: "Hitzaren erdia mintzatzen denarena da; beste erdia entzuten duenarena". Haxe duzue nire gogoeta. Orain zure txanda da, nire testua irakurtzeko pazientzia izan baduzu.

Eguberri Zoriontsuak!



La ★ Salle
gara

harantzago begira

300 urte, hamaika bihotz

Gaur atzo bezala, salletar eskolek San Juan Bautista De La Sallek 1680. urtean hasitako hezkuntza proiektu horrekin jarraitzen dute. La Sallek bere bizitza eman zuen, esfortzu eta lan handia egin zuen eta ildo beretik jarraitzea da gure helburua.

Bideo



La Salle proiektuaren handitasuna zuhaitz sendo bat eman duen haziarekin parekatu liteke, hosto iraunkorreko zuhaitza, adartzat salletar elkartearen zati desberdinak dituen.

Salletar Institutu mailan, enborra ARLEP Barrutiaren sinboloa litzateke, guztia eusten duena eta bertatik bizitza gehiago sortzen dena; sektoreak adarrak dira, bertatik geurea bezalako ikastetxeak kimatzen dira. Hosto hauek ez dira inoiz erortzen eta, batzuetan, lore eta fruituekin batera bizi dira. Lore eta fruitu hauek familia handi honetako kideengan pentsarazten digute: ikasleak, anaiak, hezitzaileak, familiak, ikasle ohiak, langileak eta

animatzaileak. Pertsona hauek, loreek eta haziak bezala, bizitza eta kolorea ematen diote eskolari dedikazio eta maitasun osoz egunero egiten duten lanaren bitartez.

Oso gutxitan aurki dezakegu isolatuta dagoen zuhaitz bat, beste zuhaitzekin batera basoetan bizi baitira. Gure zuhaitzak luzaroan iraun du, hiru mende jadanik. La Sallek ereindako hazi hori zerbait handia, oso handia, bihurtzea lortu du, eta gu harro senti gaitzkeen horren zati aktiboa gara. Zumarragako ikastetxetik elkarte hau osatzen dugunok hirugarren mendeurren hau ere ospatu nahi dugu bizitza eta itxaropenez betetako momentu bat bezala.



300 urte hezitzen

San Juan Bautista de La Sallek heziketa mailari buruz zuen kezka eta behartsuei laguntzeko gogo bizia 1680 inguruan hasi zen eta ordutik ez da gelditu 1719an hil bazen ere. Gero eta biziago dihardute anaiek, irakasleek eta pedagogoez egiten duten lan nekaezinari esker. La Sallek bide honi ekin zion orain dela 300 urte. Hasieran etxe bat alokatu zuen behartsuentzat doako eskola bat sortzeko asmoz eta, urte batzuk geroago, bere obra zabaldu zuen Paris eskolaz josiz. Bere lanak bizirik dihardu, gaur egunerarte handitzen joan da. Bere bizitza eta hezkuntza filosofia mugetaz harantzago joan ziren eta, ondorioz, salletar kultura anizdun familia bat sortu zen, izendatzaile komun bat duena: heitzeko konpromisoa. Bidaia berritzaile eta inspiratzaile honetan La Salle ikastetxe guztiek ezinbesteko lana gauzatzen dute: umeen, nerabeen eta helduen lagun dira bidean, etorkizuna sumatzen laguntzen diete, zeru eta lurraren arteko muga.

Aurtengo lema "Bihotz bat, konpromezu bat, bizitza bat":

- Bihotzak gogorarazten digu hezitzaile bezala neska-mutilen bihotzak mugitzeko ardura dugula.
- Gudan konfidatu duten behartsu, gazte eta helduei giza hezkuntza erlijiosoak erakusteko konpromezuarekin jarraitu behar dugu, burutzen ditugun gauza guztietan hezitzaile eta eredu onak izanik.
- La Sallek egindako ibilbidearen etorkizunarekin jarraitzeko esperantza mantentzea, nork bere bizitza Jainkoari eta behartsuei entregatu zien.



Aurtengo kartelaren esanahia "Denok La Salle gara" da. Eskuinaldean sortzailearen aurpegia marraztuta dago, bere pertsona, testigantza eta lehenaldia irudikatuz. San Juan Bautista De La Sallek esker oneko begirada dauka bere proiektua nola hazi den ikusiz. Ezkerraldean, bere aurpegitik aterako balira bezala, gaur egun bere ibilbidea jarraitzen dugunon irudia: irakasten duen irakaslea, mundu deskubritzen duen ikaslea, hezkuntza proiektuan ezinbestekoak diren familiak, aisialdiko ekintzetan parte hartzen duten gazteak, musika, artea, natura, proiektu berritzaileak...

300 urtetan zehar historia nola egin den oso azkar esaten da; hezitzaile kristauen zaindaria izatea oso azkar esaten da. Hala ere, La Sallek utzitako ondarea ezin da orri bakar batean idatzi, ezta laburtu ere zein urruti iritsi den lanari, dedikazioari eta familia handi hau osatzen dugun guztion lanari, dedikazioari eta egunero hobetzeko daukagun gogoari esker. Milaka pertsonen bizitzan ezinbestekoa izan da eta izaten jarraitzen du. Milioika pertsonen bizitzan.

Salletar pentsamendu aintzindaria eta obra oso azkar zabaldu ziren. 100 bat anaiek beharra ikusi zuten eta eskolak sortzeari ekin zioten. Gaur egun 4.000 anaia daude. Laguntzeko

La Sallek gaurkotasunean ezagutzen dugun bigarren hezkuntzaren haziak landatu zituen.

Hauek izan ziren bere ekarpenak:

1. Ikasleak mailakatzea
2. Klaseetarako ordutegi zehatza ezatzea
3. Herri-hizkuntzan irakastea (ez latinez)
4. Lehenengo zentzategiak sortzea
5. Irakasleei bideratutako ezagutzen diren lehenengo eskolak sortzea
6. Teologiaren hezkuntza zabaltzea

DATUAK

- La Salleko 1021 eskola 5 kontinenteetan banaturiko 82 herrialdetan presente daude
- 22 Afrikan, 22 Amerikan, 16 Asian, 18 Europan eta 3 Ozeanian
- 4000 Anaia inguru daude, 75000 irakasle eta milioi bat ikasle
- "Haur onak egiteko bide onena hauek zoriontsu egitea da", Oscar Wilde

behar hori hazten ari da gaur egun ere, gure ikasleak hazten ikusten ditugun bezala, 1000 eskola eta milioi bat ikasle dauzkagularik. Salletar hezitzaileek hezkuntza etapa guztietan Fundatzailearen karisma bizirik mantentzea lortzen dute.

Anaiak Zumarragara orain dela 104 heldu ziren. Hasiera batetik saiatu ziren garai bakoitzean suertatzen ziren behar desberdinetara egokitzen ziren hezkuntza forma desberdinak garatzen. Bestalde, salletar eskolak lortu zuen bere kalitatezko formakuntzaren marka pertsonala ezartzea, non pertsonaren dimentsio pertsonala jakintza eta ezagutza jabetzari gailentzen zaion. Garai honetan helburu nagusia inklusibitatean, errespetuan eta trszendentzian hezte da.

300 urtetaz hitz egitea fidelitasunaz hitz egitea da, bidean oztupoak topatu arren, bere espirituari leial mantendu dena. Gure elkarteak, bizitza estilo honekin konprometitu, bizirik mantentzea lortu du mundu osoan zehar. Konpromiso hau salletar espirituaren isla da, behar den lekura heltzeko prest dagoena. Besteekiko dedikazioka, bizitza estilo bezala, nagusi den indibidualtasuna gailentzen laguntzen digu, horrela trszendentzia lortuz.

"Bihotzera heldu"

Pertsonen bihotzetara heltzen lortzea doaia eta artea da aldi bererari, La Salleren ondarea da eta ezin dugu ahaztu. Ez da maitasun abstraktu bat, hitzen, keinuen, jarreraren eta ekintzen bidez adierazten den konpromiso zehatz bat baizik. Gure aurretik zeudenek erakusten digute ez dagoela aurrera eramane daitekeen proiekturik pertsona konprometituek osatutako elkarerik gabe.

Ikasleak jaso, arretaz entzun, beraien esfortzua balioetsi, beraien hazkuntza prozesua sustatu eta bihotz eman, baita beraien bidea egiteko baliabideak eman, hori da bihotzera heltzea. Eta prest al gaude hori egiteko? Erantzuna argi dago: bai.

La Salle osatzen dugun guztiok oinarritzko ezaugarri bat daukagu amankomunean: jakintza behar dutenen eskuetan jartzea. Salletar karisma partekatzea bizitza ulertzeko era bat da, izateko eta aritzeko era bat. Anai Álvaro Rodríguezek, ex Superior General del Instituto de los Hermanos de las Escuelas Cristianas, horrela azaltzen du urtemuga honen ospakizunaren aurrean: "ez gara zentratu behar nor garen jakiten, norentzako garen jakiten baizik". Guztiok talde baten kide izatea nahi dugu, horrek laguntzen gaitu babestuak, maitatuak eta baloratuak sentitzen. Ospa ditzagun 300 urte hauek, baita hurrengoak ere.



IKASLEENTZAKO HELBURUAK

1. La Salle familia handi baten parte aktibo sentitu, eskola bat baino haratago doana.
2. San Juan Bautista De La Sallek eramane zuen bizitza xumearen berri izan eta 300 urte hauetan egindako lorpenak ezagutu.
3. La Salle ikasi, hazi, besteak lagundu eta ekintzetan konprometitu naitekeen eremutzat hartu.

HEZITZAILEENTZAKO HELBURUAK

1. La Salleren parte sentitu, parte hartzen dudane komunitatearen partehartzaile bai Sektore, Distrito eta mundu osoko familia handi honen kide
2. La Salleren bizitzaren zenbait momentu indarberritu gure ibilbidea argitzeko eta 300 urte hauetan zehar ekintza esanguratsuak ezagutu eta aditzera eman
3. Egunerokotasunean lan egiten dugu lasalletarren misioaren kide aktibo eta sortzaile izan
4. Gure alde hezitzaile lasalletar bokazionala sakondu
5. Konziente eta naturalki bizi La Salleko hezkuntza proiektua, bere ezaugarri eta bereizgarritasunekin

FAMILIENTZAKO HELBURUAK

1. La Salle familia handi baten parte aktibo sentitu, eskola bat baino haratago doana.
2. San Juan Bautista De La Sallek sortutako hezkuntza proiektuari berri izan eta 300 urte hauetan egindako lorpenak ezagutu

Irakasleen txokoa

Hona hemen gure irakasleek gure ikasle eta gurasoei ikasgaiz ikasgai gomendatzen dieten materiala.



Haur Hezkuntza

Abesti bat dantzatzeko eta abesteko



Lehen Hezkuntza

BIDEO-IPUINA



HUMAN 3.0 APPLICATION GORPUTZEKO ATALAK LANTZEKO

Giza gorputza ikus daiteke 3Dn, bere geruza desberdinetan (azala, giharrek, hezurak, organoak). Sartzeko erregistratu behar zara, baina dohainik da. Azalpenak ingelesez daude.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

BIO-GEO



DONOSTIAKO ZIENTZIA ASTEA

Bertan dago ikasle batzuek parte hartu duten Donostiko Zientzia Astea ekitaldiaren inguruko informazioa. Interesagarri da zein zientifiko bisitatu duten Euskal Herria, horietako batzuk Nobel Sariak dira. Haien ibilbide zientifiko azaltzen da eta zein aurrerapen lortu dituzten.

[Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko](#)

Ohikatu gabe hezi



Ikasleak nola motibatu

[Izenburuen gainean klikatu edukietara joateko](#)

Lehen hezkuntzako azken zikloko irteeratxoaren bideoa



INGELESA

Ever wondered if your writing is correct? Do you need help checking your written presentations or essays? Try this free writing assistant! grammarly.com



EUSKARA

Euskal Herriko historia ezagutzeko bideo interesgarria



PLASTIKA

Komikiak sortzeko webgunea



MATEMATIKA ETA IKT

Matematika asmakizuna



Irakasleen txokoa

GAZTELANIA

Perpauen analisi sintaktikoa lantzeko



Liburuak online doan

FRANTSESA

Si on veut améliorer notre maîtrise de la langue il faut pratiquer aussi la prononciation!



ORIENTAZIOA ETA LAGUNTZA MINTEGIA

Gogoeta bat egiteko gure seme-alabei buruz



Ikasleen txokoa

Gure ikasleen lana ez da azterketetara eta etxeko lanetara mugatzen. Ekintza pila bat burutzen dute eta oso interesgarriak diren banakako zein taldeko lan nahiz proiektuak egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: gure ikasleak lanean!





JAPONIA ETA 4 URTEKO UMEAK
 Asiako herrialde bat da Japonia. Tokio da bere hiriburua eta bere bandera zirkulu gorriak eguzkia irudikatzen du. Gailurrik garaiena Fuji mendia da. Kimonoa erabiltzen dute ospakizunetan eta asko gustatzen zaizkie sushia, tenpura eta misozko zopa.
 Espero dugu egun batean hara joatea, hango lorategitan egotea eta tren balan bidaiatzea... SIRABUN hitz magikoarekin dena posiblea da!

HH 4 urte / Japonia

HH4 URTE IPUINAK

Txagorritxu eta Hiru Txerrikumeen "eva gomaz" egindako ipuinekin gozatzen ibili dira gure haurrak. Ipuinen kontaketa murgilduta txikien buruek bidaiatzen dute, jakin-mina eta sormena sustatuz. Gainera ipuinak gure kulturaren parte garrantzitsua dira, belaunaldi belaunaldi pasatzen dena.



HH 4 urte / Ipuinak

ERROMA

HH 5 urteko neska mutilek zibilizazio desberdinetan zehar bidaiatzen hasi dira eta lehenengo geldidunea Antzinako Erroman egin dute. Bertako ohiturak eta monumentu famatuak ezagutu dituzte eta baita bertako bizitza irudikatu (garaieko jolasak, merkatu erromatarra etab.). Buztinarekin anforak egin, mosaikoak sortu, zenbaki erromatarrek ezagutu, xaboiak eta koloniak sortu... Zenbat gauza ikasi dituzten!



HH 5 urte / Erroma



Ikasleak ditugu bertsolaritzan euskara sustatu txiki-txikitan postontzietatik pozak izan goza ezazue kantagintzan

La Salle Zumarragak eta Bertsolari Elkartek bat egiten dute eskolan bertsolaritza eta bide batez, euskara sustatzeko. Hilabete bitan, hau da, lau ostiraletatik bi, bertsolari bat dator LH 4. eta 5. mailako ikasleekin egotera, bertsoen zirrikitu eta sekretu guztiak argitzera, errimak sortzera eta, funtsezkoa, bertsoak botatzera. Aurtengo ikasturean Bixente Gorostidi dator gurera.

LH 4-5 maila / Bertsolaritza



La Salle Zumarragan gure ikasleen gaitasun guztiak lantzen ditugu, denak baitira garrantzitsuak heldu autonomo eta konpetente izatera ailegatzeko. Klaseetan barrena ekintza ezberdinak egiten ditugu eta hemen, Halloween-en arira baina batik bat eskuekin sorkuntza landu nahian LH 5. mailako ikasleek armiarma batzuk egin zituzten paperekin. Papiroflexia eta origamiaren onurak ezagunak dira, ikasleak suspertzen baiditu bai mentalki, bai fisikoki.



LH 5 / Armiarmak

LH 5.mailan Eguzki Sistemaren atalak ikasteaz aparte maketa ikaragarriak sortzen dituzte. Planeta bakoitzaren ezaugarriak ikasteko, bere tamaina eta kolorea, Eguzkitik zein distantziara dauden... hobeto barneratzeko material ezberdinez unibertso txikiak sortzen dituzte. Edukiak lantzen dituzte era dibertigarri batean.

Argazkiak



LH 5 / Eguzki sistema

LH 6.maila "goizeko gogoeta"

Goizero egiten diren gogoetak asko laguntzen du eguna beste lasaitasun batekin hasteko baita ikasleak eta gure mundua hobeto ezagutzeko ere. Egun honetako gogoetaren esaldia "esker onekoa izan" zen eta tarte batean ikasleekin gaiari buruz hitz egin ostean collage hau honen bidez, LH 6.mailako ikasleek egindako lana dugu, esker onekoa izateak dakartzan onurak islatzen duena.



KARTA JOKOA

Bigaren hezkuntzako lehenengo mailakoek Karta Jolas bat sortu dute taldeka. Horretarako, sormen lanetan beharrezkoak diren material eta prozesu ezberdinak sortu dituzte.

Helburua, Zumarraga-Urretxuko pertsonai ezberdinak eta hauen biografiak uztartuz, karta joko bat sortzea. Hau da aurkeztutako PPTrik osatuenetarikoa.

DBH 1 - Lengua



FRANTSESA 2 AURKEZPENAK

Eleaniztasuna bultzatuz, La Sallek aukera bezala laugarren hizkuntza eskaintzen du. Hemen aurkezten dizkizuegu ikasleen bigarren ikasturteko proiektu idatzia. Lehenengo ebaluaketa baliagarria izaten da

pasa den urteko edukiei hautsa kentzeko, baita gauza berriak ikasteko ere. Dakiten gauza guztiekin haien aurkezpene pertsonalak egiten dituzte, oraingo honetan bakarka.



DBH 1 - Lengua



Bigarren mailakoek kondaira baten inguruko komiki bat egin dute eta bi hauek dira gelako lanik txukunenak. Bakoitzak ezagutzen zuen kondaira batean oinarritutako komikia sortzea zen lanaren helburua.

DBH 2 - Lengua

EUSKAL LITERATURA

Euskara da La Salle Zumarragaren hizkuntza, eta ikasgaiaren propio gure kulturaren parte garrantzitsua bat ikasteko aprobetxatzen dute ikasleek, euskal literatura. Erdi Aroaren amaieran eta Aro Modernoan zehar egondako literatura, XVI eta XVII. mendeetako hain zuzen ere. Hemen DBH 3. mailan egindako lanak.

Bideoa

Bideoa



DBH 3 - Euskara



DBH 2 - IKT

Bideoa

Bideoa



POESIA EMANALDIA

Urtero bezala, DBH 3. mailako ikasleak gaztelania ikasgaiaren programazioan poesien ezaugarriak ikasten dituzte gero talde kooperatiboka haien soneto, kuarteto edota serbentesioak sortzeko. Amaitutakoan, kaperan egiten da emanaldia poemak ozenki haien bigarren hezkuntzako azken zikloko ikasle guztien aurrean ozenki irakurtzeko.

Jone Alustiza, Nagore Pereiro, Nahia Salgado, Endika Ratón

Izaro García, Iker Hurtado, Ioritz Martín, Naroa Silvestre

Ainara Cantero, Naroa Lamadrid, Iñaki Castillo

Leire Viedma, Maialen Bikuña, Asier Estalayo, Iker Elgarresta

Iker Estomba, Irene Aramburu, June Rodríguez, Irene Ferrero

Mailen Gutierrez, Iria Rodríguez, Igor Gómez

Ainara Braña, Irune Sardiña, Gorka Delgado y Aroa Fraile

BIDEO POEMA



DBH 3 - Poesia



BONJOUR! FRANTSESEKO AURKEZPENAK
Frantseseko hirugarren urtean beste ikastetxe batekin egiten den trukaketaren harira elkarri bideo, postal eta emailak bidaltzen dizkiegu. Hasiera honetan, aurpegia jartzeko eta frantsesek gutaz zerbait ezagutzeko, gure neskek haien aurkezpena egin dute.

IRUNE, MARIA...
NAHIA, IRENE...

FRANTSESA - DBH 3



VOYAGE, VOYAGE...

Présentation en Genialy de trois de nos élèves de la dernière année de français.

Frantses ikasgaiko azken urteko Elene Albisua, Eider Delgado eta Ainara Fernández, hiru ikasleek osaturiko aurkezpena dugu hau. Klasean ikasitako lehenaldiko aditzak, juntagailuak eta erlatibozko perpausak martxan jartzea zen helburua, egindako bidaia bat kontatzen. Neska fantastika hauek edukiak ondo jartzeaz gain polita egin dute, eta gure pentsamenduak bidaiatzea bidaiatzea lortu dute.

FRANTSESA - DBH 4



ERROMANTIZISMOA

DBH 4. mailako, gaztelania eta literatura ikasgaien lehenengo ebaluaketan zehar XIX.mendeko ekoizpen literarioan zentratzen da, Erromantizismoan, alegia. Gaia ikasleekin gaurkoratzeko lerro hauetan zehar haien sentimenduak plazaratu dituzte.

Hona hemen adibide batzuk

Janire Garcia
Ainara Fernandez
Maider Aranzadi

LENGUA - DBH 4

SEIN DBH 1

Gure La Salle ikastetxeak urteak daramatza hezkuntza egitasmo berritzaileak sortzen eta martxan jartzen, haien artean urte batzuk era arrakastatsuan funtzionatzen duen SEIN proiektua daukagu.

Ikasleek taldeetan era kooperatibo eta transbertsalean lan egiten dute. Proiektu honen helburua nerabeak heldu berritzaile, sortzaile, kritiko, autonomo eta komunikatzaile bilakatzea da. DBH 1.mailakoek lanean dihartute ikastetxearentzat hobelkuntzen proposamenetan.



SEIN - DBH 1

SEIN 3 solidaritatea ardatz, taldeka herri solidario baten proiektua sortu dute. Solidaritatea, gizakiak elkarri laguntza ematera bultzatzen duen sentimendua da, balio morala eta bizitzaren arlo ezberdinak izaten ditu kontutan. Hemen bi lan aurkeztu nahi dizuegu, batak astruismoari buruzko lanketa egiten duena, besteak naturaren zaintza bultzatzen duena.

SEIN - DBH 3

IRENE FERRERO ETA IKER ESTOMBA

Altruismoa besteak laguntzeko printzipioa eta praktika da, bestearen maitasun soilagatik eta trukean ezer jaso beharrik gabe. Berekoikeriaren aurkakoa da eta enpatia eta eskuzabaltasunarekin parekatzen den bertutetzat jotzen da.

PAULA LÓPEZ ETA IZARO GARCIA

NATURARI BURUZKO EKINTZA SOLIDARIOAK→ Ekintza asko daude gai honen barruan eta gure inguruan egiten direnak, hala nola ibaia garbitzea, Aste Berdea, garraio zerbitzuen eguna, zuhaitz eguna, Mugikortasunaren Astea... Gure ingurunea zaintzea funtsezkoa da bizitzeko.

Star News

Trabajando unidos con Proyde Proega
Izaro García

Deporte escolar
Igor Gómez

Izartxo, una extraescolar en el colegio de La Salle

Marta Pastrán

¡Izartxo, la felicidad de los niños!

Nahia Montero

En la escuela no hay programación como asignatura
Andoni Sancho

Poi, la nueva enseñanza
Jone Alustiza

Reflexión en las Escuelas de La Salle
Maialen Bikuña

SEIN como nuevo aprendizaje cooperativo
Irene Aramburu

LENGUA - DBH 3

Anai-arrebak eskolan

La Salle Legazpi es una gran familia formada por muchas familias. En esta sección queremos conocer a esas familias que conforman nuestro día a día y dan sentido a nuestra labor. He aquí lo que nos han contado sobre nuestro colegio:

- 1. Hitz batekin definitu ezazu eskola.**
- 2. Zein aldaketa nabaritu dituzu aurten?**
- 3. Zein aholku emango zenioke zure anaiari / nebari / ahizpari / arrebari?**



Paula Ibarzabal LH2

- 1.-** Gela
- 2.-** Diktaketekin hasi gara baina oso ondo pasatzen dugu
- 3.-** Aprobetxatu orain txikia zarela gero zailagoa delako. Ondo eraman zaitez lagunekin, urte asko pasako dituzulako haiekin

Irene Ibarzabal LH6

- 1.-** Lagunak
- 2.-** Ikasle nagusiak hurbilago daude. Ez da zaila izaten ari
- 3.-** Zaindu eta ez galdu lagunak

Nekane Ibarzabal DBH 4

- 1.-** Ikasketak, etorkizuna eta lagunak
- 2.-** Matematikak zailagoak dirudite eta hizkuntzetan tituluak atera nahi ditudanez oso zentratua nago
- 3.-** Lasai egoteko



David González LH6

- 1.-** Lagunak eta ikastea
- 2.-** Berdin sentitzen naiz
- 3.-** Lasai egon eta disfrutatu

Verónica González DBH 2

- 1.-** Ikastea eta lagunekin ondo pasatzea
- 2.-** Momentuz aldaketarik ez
- 3.-** Ikasi azterketa baino lehen

Varinia González DBH3

- 1.-** Etorkizuna eta ikasketak
- 2.-** Ikasgaiak orokorrean zailagoak dira
- 3.-** Askok ikasi eta antolatua izan ikasi beharrekoarekin



Udane Aguirrezabal LH 1

- 1.-** Lagunak
- 2.-** Liburuarekin hasi gara
- 3.-** Oso desberdinak gara eta zaila da aholkuak ematea. Bakoitzak bere denbora behar du gauzak ikasteko

Urko Aguirrezabal LH 3

- 1.-** Jolasak
- 2.-** Gehien igarri dudana izan da orain orri asko ditugula ikasteko
- 3.-** Askok ikasi

Oier Aguirrezabal LH 6

- 1.-** Ikasketak
- 2.-** Ez dut somatu aldaketarik
- 3.-** Isiltasunarekin ikasi





Familien Txokoa

Familiak eskola elkartearen beste zati garrantzitsu bat dira. Hona hemen beraiei eskainitako tarteak.

Gogoeta - Orientazioa

EGUNEROKO AHALEGINA

“Helmugak dira ametsak burutzeko modua, baina diziplinaz eta ekinez bakarrik lor daitezke” zioen Denzel Washingtonek eta oso eredu ona da lortu nahi diren gauza guztiek ahaleginak eskatzen baitituzte. Ikasturte berri bakoitza abentura handi gisa har dezazun nahi dugu. Aurten, helburu asko lortu nahi izango dituzu, helmuga askotara iritsi... eta bidean suertatzen diren eragozpen, traba eta arazoak gaindituz, ate asko irekitzeko giltza lortuko duzu, arrakasta lortzeko behar duzuna garatuko duzu, alegia. Ez ahaztu ahalegintzea funtsezkoa dela abentura handi honetan.

Noizbehinka, ez gara ohartzen gure inguruan dauden ama, aita, anai-arreba, irakasle, lagun edo ezezagunen eguneroko lana eta esfortzua zeinen mesedegarriak diren. Bakoitzak bere egunerokotasunean epe txiki, ertain edo handiko helburuak lortzeko, era jakitun zein ezjakitunean, ahaleginak egiten ditu eta horien guztien onurak ikusten ditugunean, bideak merezi izan duela ohartzen gara. Noski merezi izan duela.

FAMILIA

Familia, gizartearen muina, balio-eskola da, non kide guztiak –elkarri kutsatuz– hezten diren. Familian sortzen dira lotura afektiboak amaigabeak dira, familian denek inolako baldintza barik maite dira, gaitasun eta huts eta guzti. Gure familia intimitatearen espazioa da. Familian erabat ezagutzen gaituzte, ez dugu

inolako curriculumik behar estima gaitzaten. Horrexegatik da, elkarbizitzari esker, betiko iraungo duten balioak ikasteko eremu aproposena.

Ikasi beharko duten lehenengo balio handia maitatzen ikastea da, maitatzen ikasi dugunean, dena ikasi baitugu. Maitatzeak balio asko dakartza beronekin: geure buruaz ahaztea, eskuzabaltasuna, sendotasuna, malgutasuna, elkar ulertzea, eta abar. Teresa Kalkutakoak gogorarazten digu *“maitatzea ez gelditzea dela!”*. Kasu egin diezaiokegu...

DENBORA URREA DA

Garrantzitsua da ikasteko denbora ondo aprobetxatzea, baina hori bezain garrantzitsua edo gehiago zure denbora libre ondo aprobetxatzea da, hau ondo erabiliz gero, zure eguneroko ahaleginari etekin handiagoa aterako baitiozu. Gure denbora ondo kudeatzen badugu astialdia oso onuragarria da aunitz arlotan, gure burua ezagutzen lagunduko digu, baita gure lagun-taldeena ere. Dibertsio komertzializatuen gehiegizko erabilerak eragin handia du gugan eta

gizartean: gastu handiegiak, funtsik gabeko jarduerak... Honek, gainera, mimetismoa eragiten du, hau da, denok elkarren antzeko izatea, gauza bera pentsatzea, eta erraza eta atsegina egiten zaiguna bakarrik onartzea. Badira beste jarduera batzuk, beste leku batzuk, gehiago poztu eta zoriontsuago egin zaitzaketenak, zure lagunak aukeratu ez arren. Hortaz, aukeratu hobe izaten lagunduko dizuten jarduerak; egiten duzuna egin ondo; erabili zure irudimena eta ekimena; eta, batez ere, autonomiaz, horrek interesik gabeko jarduerak egitea eta errutinan erortzea eragotziko baitzikizu. Ona eta komenigarria da zentzu kritikoa eta irizpide pertsonala edukitzea, gara ditzakezun jarduera guztietatik zeinek laguntzen dizun hazten, zeinek eragozten dizun haztea eta eragiten dizun denbora galtzea bereizteko. Gogoratu: denbora urrea bezain baliotsua da.

MOTIBAZIOA

Batzuetan atentzioa ematen du hainbeste gauza edukita, zoriontsu ez izateak, gure bizimoduarekin pozik ez egoteak.

Gure ingurura begiradatxo bat botatzen badiogu, gure motibazioa berrabiarazi ditzaketen ehundaka motor daudela konturatuko gara.. Kontaktua besterik ez dugu piztu behar aurrera egiteko eta maite ditugun gauzak berriz ikusi ahal izateko.

Dena dela, masako komunikabide eta sare sozial kolapsatuek noizbehinka iparra galduarazten digute. “Hemen eta orain”, “inoiz ez da aski”, “beti zerbaiten falta”, dira gure ikusmirak lausotzen dituzten gaur egungo lemak eta benetan motibatzen gaituena ahaztera bultzatzen digutenak. Hau berriz lortzeko, bakoitzak bere abileziak izan arren, badago erraza eta oso ondo funtzionatzen duen trikimailu bat: idaztea. Garaipenen koadernoak sortzea. Gauza onen koadernoak, non idatzi gure buruarentzako hitz politikak, barre-algaraka egin genuen eguna deskribatzeko tokia, maite zaitut esan zigutenen momentua irudikatzeko, pilak kargatu ziguten besarkada gogorarazteko... Laburbilduz: gertatu zaizkigun lorpen eta gauza on guztien libreta. Era honetan, beharra somatzen dugunean, begiradatxo bat botaz gero konturatuko gara lortu eta bete ditugun helburu guztietaz, egin dugun barre guztiaz, momentu zailtan gure senide eta lagun denek gugatik egin duten guztiaz, egunero sortzen dugun maitasunaz, alegia. Eta, dudarik gabe, horrek motibazioa berrikusten laguntzen du, gure burmuina pentsamendu onuragarrietan berriro sintonizatzeko. Azken finean, motibazioa, gure hautaketa bakoitzak gure bizitza iraultza dezakeela jakitea da.

Amélie, beltzez jantzitako emakumea

Anai Mikel Arbizu

Jaiotza: Koben (Japonian),
1966.eko uztailaren 6an.

Naziotasuna gaur: Belgiarra.

Izen zuzena: Fabienne Claire Nothomb.

Goitizena: Amélie Nothomb.

Lanbidea: Idazlea.

Bizilekua: Brusela eta Paris.

Literatura-lana: Hiru eleberri urtero;
baina bat bakarra aurkezten du.

Argiratutako obra kopurua: 25.

Dituen jarraitzaileen ustez, argitaratzen duen obra berri bakoitza best-seller baten sinonimoa da. Azkena, "Riquete el del Copete", Perraulten ipuin batean oinarrituta dago izenburu bertsuarekin; printze itsusi baina inteligente baten historia eta disdirarik gabeko printzesa eder batena. Maisutasunez eta jenialtasunez gure garaira egokitutako alegia da.

Liburuen azaletan eta azal hegaletan, beti ikusten dugu Amélie kapel beltz, handi eta altuarekin; ile ilunkarra, ezpain margotuak eta soineko informala, goitik behera. Ohiko "look"-a da.

Haren obrek bizitasuna, zalutasuna, freskotasuna, ironia, orijinaltasuna, zorrozatasuna eta umorea erakusten dute. "Barre egiteko aukera dugulako bizirikgaude" esan zuen elkarrizketa batean. Gainera, eleberri bakoitza laburra da, oso laburra; datu interesgarria irakurlea den publikoarentzat.

Bere ibilera "Estupor y temblores"-ekin hasi zuen (1999). Bertan, Tokion izan zuen lehenengo lana gogoratzen du; bere lan-

esperientzia erakutsiz, berezko herrian duten izaera aditzera emanez. Idazkera bitxia eta ederra, benetan; behin irakurtzen hasiz gero, utzi ezin dena.

Bada zerbait kurioa: bere burua XIX. mendeko emakumetzat dauka. "Ez dut ez mobilik, ez ordenagailurik eta ez ditut e-mails-ak idazten", aitortzen du naturaltasun osoz.

2010.ean "Una forma de vida" argitaratzen du: egilearen eta Irakeko sasi-soldadu baten arteko gutunak dira. Jarraian irakurtzen da; ohi bezala, irribarreak, harridurak, komunikatzeak duen garrantzia, besteen beharra...

"Barba azul" (2012): fantasia, elkarrizketa zoragarriak, espero ez den akaberarekin. Tramak dilindan mantentzen gaitu eta idazlearen idazkerak harrapatzen gaitu.

2014.ean "Petronile" aurkezten du, literaturaren eta xanpain-mozkorraldiaren artean. Umore beltz pixka bat, baina jostagarria. Protagonista bera Amélie deitzen da. Bere bizitzako pasadizoak aurkitu ote ditu?

Hurrengo urtean "El crimen del conde Neville"-rekin datorkigu. Noblezia belgiarra barregarri uzten du. Entretenimendua ehuneko ehunean dago bermatua. "Maitagarrien ipuina balira bezala, tragedia apur batekin nahastuta".

Bere obra guztiek ziurtatuta dute salmenta. Eskuratuko al du Nobel saria? Suediar akademiaren egoera ikusita, utz dezagun gaia beste baterako.

Orain gutxi azaldu da Frantzia haren azken lana: "Frappe-toi le coeur". Hilabete gutxi barru, jada itzulita, zure liburudendan edo herri-biblioteketan izango duzu. Ea zelako ustekabea ematen digun.



GURASOEN TXOKOA

Ikastetxeko aldizkariaren ale bakoitza sortzen dugu ikasle eta irakasle goaren parte hartze aktiboan, eskolan egindako lanaren emaitzak erakutsiz, eta ikaskuntza prozesua indartzeko era alternatiboak eskainiz.

Hala ere, gure komunitateko euskarri nagusietako bat falta da: familia.

Guraso bezala, anima zaitezte gure aldizkarian parte hartzera, bai erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak proposatuz, bai zuen hausnarketak, inpresioak idatziz guztiokin partekatuz.

Gurekin harremanetan jar zaitezke aldizkaria@lasallezumarraga.eus helbidea elektronikoan..

Merezi du

Ikasle ohiak praktiketan

La Salle Zumarragako familia handi honen kide aktiboak dira ikasle ohiak eta aurten, hemen ikasitako hiru neska haien praktikaldia egiten ari dira, bakoitzak etapa batean gainera, beraz, hitza eman diegu haien esperientzia ikasle ohi eta orain irakasle formazioan bezala kontatzeko.

Etxera bueltan!

AINHOA ESTOMBA

Pentsatzen hasiz gero, eskolara etorri nintzen lehenengo aldia orain dela 30 bat urte izan zela konturatu naiz. Egun hartaz ez dut ezertxo ere gogoratzen, baina ziur sentipen anitzak izan nituela. Bai gogoratzen dudana gu ikasle eta irakasleen artean zegoen elkartasuna zen, orain ere senti dezakedana. Denbora aurrera doa, hainbat gauza aldatu dira (IKTn erabilera ikasgelan, irakasle berriak, instalakuntza berriak, ...) baina beste zenbait gauza ez dira inoiz aldatzen eta, zorionez, ez dira sekula aldatuko.

Orain beste aldean nago eta gauzak beste perspektiba desberdin batetik ikusten ditut. 11 urte daramatzat ingeleseko irakasle lanetan akademia batean eta aurten nire ezagutza zabaltzea erabaki nuen irakaskuntza master baten bitartez. Jakina denez, irakasleek ez diote sekula ikasteari uzten... Hori dela eta etxera bueltan nago praktiketako ingeleseko irakasle gisa.

Hilabete honetan elkarlanean aritu naiz Elena M. eta Karmelerekin, eskolako nire ingeleseko irakaslea izandakoa eta ingelesarekiko daukan maitasuna transmititu zidana. Betidanik miretsi ditudan irakasleen

ondoan irakasle gelan esertzeak pixka bat beldurtu ninduen. Hala ere, segituan etxean bezala sentitu nintzen. Irakasle guztiek ongietorria egin zidaten, oso atseginak izan dira nirekin eta ni laguntzeko beti prest egon dira. Horrek irakasleak pertsona errealak bezala ikusten lagundu dit, nire irakasle ohiak izandako "irudi" hartatik aldenduz. Beraiekin "lan egitea" atsegin handia izan da: Marisa, Josu, Anaje, Xabi A., Amaia I., Goyo eta Karmele. Irakasle "berriek" ere oso ongi tratatu naute, bereziki Elena M.-k, nor bere klaseei eta metodologiari buruz guztia azaltzeko beti prest egon den. Xabi O., nire tutorea eta eskolako gidari, nire master amaierako proiektua egiteko behar dudan edozertan lagundu dit.

Arbel zaharrek On Gonzalo, Txusma, Txomin eta orain eskolan ez dauden beste hainbat gogora ekartzen dizkidate, jadanik eskolan ez daudenak baina familia handi honen kide betirako izango direnak. Familia honetako partaide izatea inork senti dezakeen sentsaziorik hoberenetako bat da eta nik neuk harro esan dezaket "La Salle-Legazpi" izeneko familia handi honetako kidea naizela.

La Sallen praktiketan

LEIRE LEGARISTI

Leire Legaristi naiz, La Salle Legazpiko ikasle ohia. 2 urtetik 16 urtera arte La Sallen burutu nituen ikasketak eta gaur egun, EHUn Haur Hezkuntzako Gradua egiten ari naiz.

Unibertsitateko irakasleak hilabete bateko praktikak egin behar genituela esan zigunean, La Sallera joango nintzela argi izan nuen.

Akademikoki, ikastetxe honen metodologia eta ikaskuntza prozedurak asko gustatzen zaizkit. Lan taldeak, teknologia berriak, proiektu eta programa berriak bultzatzeaz gain, ikasleen parte hartze aktiboa sustatzen dute.

Era berean, hemengo ikaslea nintzenean, irakasleak beti laguntzeko prest zeuden eta banekien orain ere laguntzeko prest egongo zirela. Eta horrela izan da. Josune irakaslearekin 5 urteko gelan egokitu zidatenetik, nire lana erraztu eta esperientzia honetaz gozatzen laguntzen ari didate guztiek.

Beraz, zalantzarik gabe, behin eta berriro aukeratuko nuke La Salle nire ikasketak eta praktikak burutzeko.

Bizitza bat La Sallen

EIDER CEREZO

Duela 17 urte nire gurasoek eskola honetara ni ekartzea erabaki zuten. Bertan burutu nituen haur-, lehen- eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak, beraz, 2 urte nituenetik 16 urte bete arte La Salle Zumarraga ikastetxean ikasi nuen. Aipatutako 3 etapa bakoitzetik oroimen on asko gordetzen ditut.

Gaur egun, Donostian Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari naiz, eta hilabetez eskolara bueltatu naiz nire lehen praktikaldia egitera. Hasierako momentutik oso argi nuen izan zen nire ikastetxera etorri nahi nuela praktikak egitera, nire irakasle izan zirenetatik gauza gehiago ikasteko asmoz.

Haur Hezkuntzan nire irakaslea Begoña izan zen, gauza asko erakutsi zizkigun, eta nahiz eta eskolaz kanpoko ekintza bat izan, balleteko erakuspenetarako noizbait mototsak egiten zizkigun ere. Beti ilusioz eta irribarretsu erakusten zizkigun gauzak, eta horrelakoak ez dira ahazten.

Lehen Hezkuntzan izan nituen irakasle guztietatik ere, asko ikasi nuen. Eduki eta azalpenez gain, paper oso garrantzitsua jokatzen dutela uste dut balore onak transmititzearekin, adin tarte honetan


etorkizuneko herritarrek izan behar direnen garapena pil-pilean baitago.

3.mailan nengoenean orain jubilatuta dagoen Korok irakasleak esan zuenaz oroitzen naiz, "ez eman ondokoari zuk zeuk jaso nahi ez duzunik", egunerokoan pertsona hobeak izateko kontuan hartu beharreko gauza deritzot.

DBHn ere, gustura ibili nintzen, beste bi etapekin alderatuz gero, aldaketa nabarmenena edukien aldetik izan zela esango nuke. Azpimarratzekoa iruditzen zait, orain zuzendari den Danik, niregan izan zuen eragina. Laugarren mailan etikako irakaslea izan zen eta asko pentsarazten zigun, eguneroko egoeren inguruan hitz egiten genuen eta hauen inguruan esaten zigutenaz zalantza izatea eragiten zigun.

Lehenengo bi asteak, pertsonalki, zoragarriak izan dira, oso gustura egon naiz umeekin eta irakasleekin. Falta diren bi aste hauetan berdin jarraitzea da nire desioa, eta ziur nago egonaldi hau niretzat aberasgarria izango dela.

Besterik gabe, harro sentitzen naiz izan dudan ibilbidea ikusita, ikastetxe honetan nire lehen praktika egonaldia betetzeaz.





Futbol zelaian ohorezko sakea, hirurogeagarren hamarkadeko hasieran.
Saque de honor en campo de futbol a comienzos de los años 60.











LA SALLEtik – UGLE Erako bidea

Ondorengo ikasleek LaSallen ikasi eta gero,
gaur egun UGLE eskolan ikasten ari dira.
Irakur ezazu beraien esperientzia!!



DAVID NEBREDÁ

Gizarte Zientzien Batxilergoa
16 urte

DBH bukatzerakoan, argi neukan UGLEn jarraituko nituela ikasketak. Izan ere, ezagunek esanda, hemen dagoen gertutasuna, bai tokiari eta baita irakasleei ere dagokienez, aukera egokiena iruditzen zitzaidan. Gizarte Zientzietako Batxilergoa aukeratu nuen, gustuko ikasgaiak batxilergo honetan baitzeuden, eta etorkizun baterako baliagarriago izan daitezkeen ikasgaiak daudelako. Orain arte, ziur nago aukeraketa ona egin dudala.



NALAYA SEDANO

Batxilergo Teknologikoa
16 urte


Hasieratik oso argi eduki nuen zer batxilergo mota aukeratu, baina ez nekien non egin. Gertutasunak asko erakartzen ninduen baina ez zen nahikoa erabakia hartzeko. Azkenean, hainbat eskola bisitatu ondoren, UGLEren instalakuntzek konbentzitu egin ninduten. Gainera beste ikasle batzuek zioten UGLE oso ona zela alor teknologikoan eta oso gustura zeudela. Orain oso pozik nago irakasleekin eta eskolarekin eta uste dut erabaki egokia hartu dudala.



IKER ECHANIZ

Batxilergo Zientifikoa
16 urte

Nire ikasketak UGLEn jarraitu behar nituela oso argi neukan. Baina aldiz, zer batxilergo burutu behar nuen ez neukan oso argi. UGLEren instalakuntzak ikustera joan ginenean hartu nuen erabakia, Batxilergo Zientifikoak nahiko gogoko nituen ikasgaiak zituen eta praktikak egitea eskaintzen zuen. Azkenean UGLE etxeko gertutasunagatik gehien bat aukeratu egin nuen, baita bere instalakuntzak txarrak ez zitzaizkidalako iruditzen.



JOEL OROZCO

Erdi Maila: Mantentze-
Lan Elektromekanikoa - 16 urte

Nire kasuan oso argi neukan lehen momentutik UGLE aukera onena zela niretzako. Hala ere, argi ez neukana zein ziklo aukeratzea zen. Ate irekietan aukera ezberdinak ikusi nituen eta azkenean Mantentze eta Lan Elektromekanikoan matrikulatzea aukeratu nuen. Horretaz gain, gertutasunak eta lan egiteko erak konbentzitu ninduten. Gaur egun, UGLEn 2 hilabete daramatzat eta oso gustura nago hartutako erabakiarekin.



→ urola garaiko lanbide eskola

Beloki hiribidea z/g

ZUMARRAGA

943 725 477

www.ugleskola.org



HEZKUNTZA ARAUTUAN:

- BATXILERGOA
- ERDI MAILAKO ZIKLOAK
- GOI MAILAKO ZIKLOAK
- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAN:

- HOBETUZeko IKASTAROA
- LANBIDEko IKASATAROA



ROAYER
Artes gráficas

Avda. P. Urdaneta, 13
Telf. 943 720 665
roayer@euskalnet.net
ZUMARRAGA